



IDEIAK MARTXAN DEIALDIA

IDEIAK MARTXAN Bilboko Udalaren Gazteria eta Kirol Sailak sustatutako deialdia da. Haren bidez, bilbotar gazteentzako udal programazioa aberastu nahi da, **gazteek proposatutako ekimenak** sartuta, Bilbao Gazte 2016/2019 prozesua garatzeko balio izango dutenak.

Nork aurkeztu ditzake proiektuak?

Gazteek, banaka edo taldeka:

- Adina: 14 eta 35 urte bitartekoak
- Bilbon erroldatutakoak. Taldeei dagokienez, gutxienez kideetako batek Bilbon erroldatuta egon behar du.

Nolako proiektuak aurkeztu daitezke?

- Bilbon egingo direnak.
- Gazteentzako gai interesgarriak ukitzen dituztenak.
 - Kultura: arte plastikoak, ikuskizun artistikoak, ikus-entzunezko arteak, arte eszenikoak, musika, literatura, sorkuntza eta berrikuntza...
 - Diseinua (grafikoa, elkarreragilea, moda, etab.)
 - Arkitektura, hirigintza eta ondarea
 - Informazio eta komunikazioaren teknologiak.
 - Zientzia eta teknologia (matematikak, ingeniariaritzak, eraginkortasun energetiko eta digitala...)
 - Gizarte-berrikuntza (parte-hartzea, kontsumoa, osasuna, turismoa...)
 - Kirola eta jarduera fisikoak.
 - Kulturartekotasuna
 - Ingurumena eta iraunkortasuna.
 - Elkartasuna eta sentsibilizazioa.
 - Aisia
 - ...



Noiz eta nola aurkeztu dezakezu proiektua?

- Urte osoan aurkezteko aukera dago.
- Bidali beteta ondoko **Fitxa** email honetara: ideiakmartxan@bilbao.eus

Proiektua azaldu diezaguzun zurekin batzartuko gara.

Zeintzuk dira Gazteria eta Kirol Sailak erabiliko dituen irizpideak proiektuak haren programazioan sartzeko?

- Bilbao Gazte 2016/2019 prozesuaren helburuetarako ekarpena
- Originaltasuna eta izaera berritzailea.
- Interesa eta erakargarritasuna.
- Bideragarritasuna eta iraunkortasuna.
- Aurrekontua edukitzea.

Gazteria eta Kirol Sailak idatziz jakinaraziko du proiektua aukeratu den ala ez.

Informazioa

94 420 43 94 (9:00-14:00)

ideiakmartxan@bilbao.eus